



berria

Ostirala  
2008ko urtarilaren 4a

Zumalakarregi portalea da eraiki zenetik toki eta itxura berarekin mantentzen den harresiko ate bakarra. JACOB MANTEROLA/ARGAZKI PRESS



Portalearen irudi zaharra. IRUÑEKO UDALA

zaio. Gaur egun, ate hori da eraiki zenetik toki berean eta itxura berarekin mantentzen den bakarra.

Karlos V.aren erregealdian Iruñeko harresia berritzen hasi ziren, eta bi mende baino gehiago iraun zuten berritze lan horiek. Lanen lehen fasean gotorlekua eraikitzen hasi ziren. Garai berean eraiki zuten goiko zatia. Carmen kalera eramaten duen bidea. Arkuaren gainean, Karlos V.a erregearen armarrria dago, eta horren azpian «1553» idatzirik dago, urte hartan altxatu baitzuten.

Beheko zatia goikoa baino bi mende geroago sortu zuten. 1720an, armadako ingeniarien taldea osatu zuen Filipe V.a erregeak. Hala, militarrek hiria hobeto babesteko plana osatu zuten, eta 1753an, kanpoko zatia eraiki zuten. Barnealdea adreiluzko bobeda batez babesturik dago. Bertan, atearen mekanismoaren burdinezko gurpilak, kateak eta kontrapisuak ikus daitezke. Mekanismo hari esker, gauero zubiaren atea altxatzen zuten 1915. urtera arte.

1939an, harresiaren zati horrek Zumalakarregi zubia izena hartu zuen Iruñeko Udalaren erabakiz. Izan ere, lehen karlistaldian ospetsu egin zen Tomas Zumalakarregi Gipuzkoako jenerala Iruñeko Carmen kalean bizi izan zen. Gainera, karlistaldi garaian, zubi hartatik igaro eta armada karlistaren buru jarri zen.

# Erregeentzat irekiko den atea

## ESTITXU ZABALA

Errege Magoak Iruñera iritsiko dira Magdalenako zubitik barrena bihar arratsaldean. Baina Zumalakarregi portaleria iristean, atea itxia topatuko dute erregeek. Orduan irekiko da, lehen aldiz, urte luzez geldirik egon den portalearen atea. Hala, Errege Magoek Iruñeko udaletxerako bidea hartuko dute.

1753an zabaldu zuten lehen aldiz Zumalakarregi portalea. Urte hartatik hasita 1915. urtera arte, iluntzero zabaltzen zuten zubia. Orain, 93 urtez geldirik egon eta gero, berriro ere portalea martxan jartzea erabaki du Iruñeko Udalak, hau da, igo eta jaistea. Gainera, zubiaren jatorrizko

la 100 urtez geldirik egon eta gero, Zumalakarregi portalea berriro ireki eta itxiko dute larunbatetik aurrera Iruñean.

mekanismoa eta funtzionamendua berreskuratu dituzte. Kontrapisu bakoitzak 645 kiloko pisua du, eta igo eta jaitsiko den atea, berriz, 1.824 kilo pisatzen du. Beraz, berriro ere Zumalakarregi portaleko atea igo eta jaitsi egingo dute, garai batean bezala. Horrekin batera, portalearen lurra aldatuko dute, eta inguruko zoladura berrituko dute. Gainera, portaleko jatorrizko bi atea ere jarriko dituzte, berritu egin baitituzte. Lan horiek guztiek 22.000 euroko kostua izango dute.

**ERDI AROKO PORTALEA.** Erdi Aroan Iruñea hiru herrixketan banaturik zegoen, eta hiri osoa harresiz ingura-

turik. Hala, hirira sartzeko sei ate zeuden, eta horietako bat Zumalakarregikoa zen. Garai hartan, Abrevador deitzen zioten, eta Nabarrerria harresian zegoen ateetako bat zen. Hala, Done Jakue bidea egiten ari ziren erromesak hortik sartzten ziren Iruñera. Nafarroako artxibo nagusian dauden XIV. mendeko dokumentuen arabera, Abrevador izena XIX. mendera arte erabili zen, baina Frantziako Portalea ere deitu izan

**Bihar arratsaldean Errege Magoak Iruñera sartu ahal izateko zabalduko da Zumalakarregi Portalea**